

The background of the slide is a high-contrast, black and white image of a black hole, showing the event horizon and the accretion disk with glowing, swirling patterns.

***Behin** zulo beltzen historia pixka bat kontatu dugula, has gaitezen zulo beltzei buruzko informazio gehiago ematen.



Adibideko denborazko esapidean (*behin....*) –eLA menderagailua erabiltzea gaztelaniaren interferentziaren ondoriozkoa da (kalko okerra): "*una vez **que**...*"

EGITURA EGOKIA

- Behin ... –eNEAN
- Behin kuota finkatu **denean**, botoak baliogabetu egiten dira.
- *Behin kuota finkatuta **dagoela**, botoak baliogabetu egiten dira.



EGITURA EGOKIA

- Behin ... –TUZ GERO
- Behin taula sortuz gero, 2 zenbakiaren multiploak ezabatuko ditugu.
- *Behin taula sortu dugula, 2 zenbakiaren multiploak ezabatuko ditugu.

EGITURA EGOKIA

- Behin ... –TUTA
- Beraz, objektu hori beste objektu batzuk erakartzen hasten da, eta **behin** erakarrita, haietako ezeinek ezin du alde egin.
 - *Beraz, objektu hori beste objektu batzuk erakartzen hasiko da, eta **behin** erakarri **dituela**, haietako ezeinek ezingo du alde egin.

EGITURA EGOKIA

- Behin ... –TURIK
 - Behin zulo beltzen historia pixka bat kontat**urik**, has gaitezen zulo beltzei buruzko informazio gehiago ematen.
 - *Behin zulo beltzen historia pixka bat kontatu **dugula**, has gaitezen zulo beltzei buruzko informazio gehiago ematen.